

Eguzkiaren sarrerak

Joxean AGIRRE

S an Vicente de la Barqueratik gertu bada Oyambre izeneko paraje bat, non talaia batetik eguzki sarrerak ikustea ohitura bilakatu den. Udan zehar jendetza biltzen omen da eta udazkenean ere jarraitu egiten du errituak. Orain gutxi izan ginen eta hogeita hamar bat bikote zeuden, gehienak gazteak, isiltasun erabatekoan eguzkiaren azken esprintaren zain. Ikuskizun gutxi daude izadian, ilargi bete da beste bat; hainbeste metafora eta esamesa poetiko eragin dituenik. Osagarri ezberdinak erabiliz, neu ere bat asmatzera ausartu nintzen denbora-pasa, eta eguzkiak une horretan arrautza gaizki frijitu baten antza zuela erabaki nuen, zeruko plater urdinean behera hirugiarraren koloreko lainoen atzean ezkutatzen, metafora izateko luze samarra ateratzen bazitzaidan ere. Aparkalekuetan

“Rayo verde” kartelak ikus bazitezkeen ere, udazkenean eguzkia lurmutur baten atzean sartzen da eta han ez genuen ikusi ez izpi berderik, ez urdinik. Sarrera horri begira, gogoratu nintzen behinola Mertxe Aizpuruak esan zidala ea zergatik ez nuen eguzkia sartzen ikusteko euskal kostak zituen talaia-erederrenen inguruan orrialde bat idazten. Egun poetikoa izango zuen emakumeak eta, ni beti esaneko, han hasi nintzen Biarritzetik abiatu eta kostan zehar begiralekuen deskribapenak egiten. Zumaiaiko Itzuruni aparte bat egin nion, ezagun kuadrilla bat zegoelako arrats-eguzkia sartzen ikusteko hondartzara gain horretan biltzen zena. Jarraitu nuen Bizkaiko kostatik barrena talaia edo tala izena zuten lekuen bitartean eta kazetaritza literarioari zirriztu bat irekiz, neure gogoan iltzaturik neraman

irudi batekin bukatu nuen erreportaje interes gutxiko hura, kontatu bainuen behin neguko arrats batean ikusi nuela Aixerro-tatik edo Punta Galeatik, ez naiz gogoratzen, eguzkia zerutik behera Muskizko Petronorren tximinia nagusiaren ahotik sartzen, edo sartzeko keinua egiten gutxienez. Artean ez zen hitz egiten trantsizio energetikoaz, baina irudi indartsua zela iruditu zitzaidan eguzkia energia fosilaren ikur den tximinia bat menderatzen. Kontua da zailak handiak ditudala orain inoiz halakorik ikusi ote dudana. Oyambreko talaia-eguzki sarrerari begira nengoen bitartean zin egin nuen negu honetan egingo dudala buelta bat Aixerro-tatik Punta Galeara, ea ikusten dudana Petronorreko tximinia nagusia eguzkia jaten. Hori izpi berde bat ikustea baino iradokitzaileagoa iruditzen zait. •

Mugimendua logeletan

H an eta hemen entzun izan dut unean uneko logelaren txukuntasun, organizazio eta ordena mailak “logelatarren” aldar-tearen inguruko informazioa eman dezakeela. Adibidez, idazmahaiaren gainean bola bat eginda ikusten ari naizen jertse zikinduak zer-bait esan nahi du oraingo nire barruko egoerari buruz. Eta ohea egiteko-desegiteko eguneroko modu desberdinak, eta zapatilak gordetzeko-baztertzeko logikak, eta etxeko txapinak ohe ertzeko lur zatian kolokatzeko posizioak. Den-denak esan nahi omen du zeozer.

Logela bat norberarena duenak propio jartzen du, mudantza garaietan, ohea hemen, armairua hor, mahaia han. “Feng shui” teoriaren aholkuak irakurtzen ditu badaezpada. Edo ez ditu irakurtzen, baina lagun batek zerrendatzen dizkio logela antolatu berritan. Mugitu egiten ditu altzariak, probak egiteko, eta berriz itzultzen ditu hasierako posiziora, “horrela ondo”. Logela bat ahizparekin konpartitzetik logela bat oso-osorik niretzat izatera igaro nintze-nean, horixe egin nuen. Eta lehenengo ikasle-pisuan berdin. Eta bigarre-nean. Eta ez-ikasle-pisu honetan bizitzen jarri

ginenean ere bai: gauzak aldatu, aldatu, aldatu, eta erabaki, “horrela ondo”. Logela bat logela egiten dute barruko hiru-lau-bost altzarik, bai, baina gauzaz betetakoan bihurtzen da egiaz norbere. Mugimendua bizi da logeletan; egunero-egunero hor barruko gauzen txukuntasuna, organizazioa eta ordena haus-tuten duten emozioen mugimendua. Eta ikusi egin omen daiteke hori. Han eta hemen entzun izandakoak erabat sinetsita, etxeren batera heltzen naizen aldiro joaten zait orain begia ate erdi irekien zirrikituetatik ikusten diren logela zatietara. •

Maddi Aiestaran
Iparragirre